

ONLINE IKASTAROA

KLIMA KRISIA ETA GIZA ESKUBIDEAK: ULERMENETIK EKINTZARA

2026KO EKAINAREN 15ETIK UZTAILAREN 15ERA

SARRERA

Klima krisia ez da soilik ingurumen-larrialdi bat: pertsonen giza eskubideei, berdintasunari eta duintasunari zuzenean eragiten dien mehatxua da. Erronka global honen aurrean, haren kausak eta ondorioak ulertzea funtsezkoa da, baina hori ez da nahikoa: ekitea beharrezkoa da.

Ikastaro honek ibilbide bat proposatzen du, klima krisia eta justizia soziala ikuspegi feminista, dekolonial eta intersektional batetik lotuz, eta kolektibo ezberdinei nola eragiten dien modu desorekatuan aztertuz. Aldi berean, hausnarketatik ekintzara igarotzeko tresnak eskaintzen ditu, herritartasun kritiko, parte-hartzaile eta konprometitu bat sustatuz.

Izan ere, krisi-testuinguru batean, giza eskubideen defentsak ez du soilik kontzientzia eskatzen, baizik eta inplikazio aktiboa ere, gizarte bidezkoago eta jasangarriagoak lortzeko aldaketak bultzatzeko.

EZAUGARRI OROKORRAK

- **Hasiera data** 2026.06.15 (9:00)
- **Amaiera data** 2026.07.15 (23:59)
- **Dedikazio estimatua:** 20 ordu
- **Hizkuntza:** Euskaraz eta gaztelaniaz
- **Modalitatea:** Gela birtuala
- **Kostua:** Dohan
- **Izen-ematea:** [Hemen](#). Ekainak 10, azken eguna.

Laguntzailea:

HELBURUAK

- Ulertzea nola eragiten duen klima krisiak giza eskubideetan, justizia sozialaren, ikuspegi feministaren eta dekolonialaren ikuspegitik.
- Hausnartzea nola gurutzatzen diren generoa, identitatea, lurraldea eta desberdintasunak klima-krisiaren testuinguruan.
- Parte-hartzea, pentsamendu kritikoa eta ekintza klimatikoa sustatzeko tresnak eta ikuspegiak eskuratzea, justizia sozialaren ikuspegitik.

NORI ZUZENDUTA DAGO

- Gizarte zibileko erakundeetako kide diren pertsonak (langileak zein boluntarioak), bereziki GGKEak, giza eskubideen arloko erakundeak, ingurumenaren aldekoak, emakumeenak, migrazioen arlokoak, eta abar.
- Erakunde publiko, pribatu eta arlo akademikoarekin lotutako pertsonak, giza eskubideen, garapenerako lankidetzaren eta/edo garapen jasangarriaren arloetan lan egiten dutenak.
- Ikasleak eta klima krisiaren eta giza eskubideen arteko harremanean sakondu nahi duen herritar oro.

EDUKIAK

1. MODULUA. KLIMA KRISIA: INGURUMEN ARAAZO BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO

- 1.1 Zergatik da garrantzitsua prestakuntza hau?
- 1.2 Ez da soilik ingurumen arazo bat
- 1.3 Giza Eskubideak eta Klima Krisiaren arteko lotura: beharrezko ikuspegia

2. MODULUA. KLIMA KRISIA ETA HAREN ERAGINA GIZA ESKUBIDEETAN

- 2.1 Klima krisia eta Osasunerako Giza Eskubidea
- 2.2 Klima krisia eta Ura izateko Giza Eskubidea
- 2.3 Klima krisia eta Elikadurarako Giza Eskubidea
- 2.4 Baliabide naturalak eta demokrazia: energia ardatz

3. MODULUA. KLIMA KRISIAREN AURPEGIAK: ZAURGARRITASUNA ETA ERRESILIENTZIA

- 3.1 Emakumeak
- 3.2 Herri indigenak
- 3.3 Klima-migrazioak
- 3.4 LGTBIQ+ kolektiboa
- 3.5 Ingurumen-aktibistak

Laguntzailea:

4. MODULUA. GIZARTE ERALDAKETARAKO TRESNAK
- 4.1 Hezkuntza eraldaketarako tresna gisa
 - 4.2 Garapenerako lankidetzeta eta klima-justizia
 - 4.3 Klima-justiziarako narratibak
 - 4.4 Sentsibilizaziotik ekintzara: ekimenak diseinatzea

IKASKETA-TRESNAK

- Irakurtzeko materialak
Baliabide osagarriak
- Foroa
- Ebaluazio-testak
- Irakaslearen laguntza

ZIURTAGIRIA

Ikastaroa gainditzen duten pertsoneri ziurtagiria emango zaie. Prestakuntza gainditzeko eta ziurtagiria jasotzeko, parte-hartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Foroan gutxienez behin parte hartu izana
- Proposatutako testak gainditzea
- Prestakuntzaren azken ebaluazio-inkesta betetzea, prestakuntzaren eragina ezagutzeko eta hobekuntzak egiten jarraitzeko aukera emango duena

Laguntzailea: